


A T Z O K O !  
**Andoain**

16. zbk.

2000ko maiatzaren 28a.

eta andoaindarrak  
**eta**  
ando  
ainda  
rrak



**Gerra Zibila**

NE S  
DAS  
ONALES

S BRIGADAS INTERNACIONALES  
EL SENO DEL EJERCITO POPULAR AYUDA

# OROIMENEAN AHAZTU GABE

Zauri sakonak egin zituen gerrak Andoainen, Euskal Herri osoan bezala. Sakonak bezain ugariak ziren zauriak. 60 urte igaro dira gerra amaitu zenetik, baina zauri haiek ez dira osatu. Gerra bizitu zuten andoaindar askoren oroimenean gordeta daude orduko gertakizunak. Mingarriak dira jazoerak eta samina sortzen dute horiek berriro gogora ekartzeak.

Baina ez dira ahaztu behar. Andoaindarren eta Andoaingo oroitzapenetan bizirik egon behar du orduan gertatutak, aurrerantzean halakorik berriro

gerta ez dadin. Ezkutatu ere ez dira egin behar, sufritutakoak norberak barruan gordetzean gaiztotu egin litezke eta.

Hori da orri hauen helburua. Orduan gertatutakoak zuenganatzea, era xumean eta mendeku nahirik gabe.

Hemen ez daude gerrako pasarte guztiak, baina bai gure solaskideei jazotako batzuk. Urte latzak izan zirela igartzeko adina aipamen garrantzitsuak badira, nahiz eta kontakizun laburrak izan.

## BADATUZELA 'NAPARRAK'!

1936ko abuztuaren 16an, Roke Deunaren egunean, okupatu zuten Andoain indar frankistek, 'naparrek'. Gure solaskideetako batzuk gerraren amaieran edo ostean jaio ziren. Baina beste batzuk gerra aurrekoak dira eta oroimenean gordeta dute une hura. Tiroka sartu ziren.

Roke Ansak oso gogoan du 'naparrek' herrira sartu zireneko eguna, 11 urte bete baitzituen. "‘Naparrak’ Tolosa aldetik etorri ziren eta menpe hartu zuten herria, Goikoplaza eta Kaletxiki ezik. ‘Gorriak’ lehenagotik zeuden herrian eta bi aldeek elkarri tiroka egin zituzten 15 egun. Azkenean, abuztuaren 29an alde egin zuten ‘gorriek’". Tiro hotsak entzuteaz gain, bonbak ere bota zituzten. Herriko kaleak hutsik egon ziren borrokek iraun zuten bitartean.



Roke Ansa

*"‘Naparrak’ Tolosa aldetik etorri ziren eta menpe hartu zuten herria, Goikoplaza eta Kaletxiki ezik. ‘Gorriak’ lehenagotik zeuden herrian eta bi aldeek elkarri tiroka egin zituzten 15 egun. Azkenean, abuztuaren 29an alde egin zuten ‘gorriek’"*


'Naparrak' herrian sartu aurreko egunetan mugimendu handia zegoela esan du Roke Ansak. Hara eta hona zebiltzan kamioiak, antza, liskarretarako "‘Naparrak’ hona sartu baino lehenago Belabietan zeuden. Andoainen jende talde bat bildu zen Burun-

tzan trintxerak egiteko, 'naparrak' geldiarazteko. Haiantzako arrantxoarekin, janariarekin, gizonezko bat igaro zen gure aurretik (Upategi base-rria). Mando bat zuen eta Buruntzarako bidea erakusteko eskatu zigun". Roke bera joan zen gizonezkoarekin Buruntzan gora, mandoa sokatik hartuta. Han zegoela osaba bat agertu zen eta horrek etxera bidali zuen Roke.

Roke Ansak esandakoak ziurtatu ditu Iñaki Arregik. "Belabietatik sartu ziren. Felipe Arratibel okinak eman zuen lehen notizia 'naparrak' Tolosara heldu zirela eta bazetozela esanez".

Pablo Egibar Euzko Alderdi Jeltzalekoa zen alkate orduan. Esteban Olalde postariak ohartarazi zion Egibarri 'naparrak' bazetozela eta hobe zuela alde egitea.

'Naparrak' baino lehen barneratu ziren 'gorriak'. "Beldur handia genuen, horiek bazetozelako eta gaiztakeriak eginez zetozela esan zigutelako", esan du Navarrok. Baina 'naparrak' etortzean konturatu ziren batak zein besteak zirela "gaiztoak". Txikiketak eginenez sartu ziren 'naparrak'. Makina bat zubi behera bota zituzten: Santakruztzekoa eta Kamiokoa. "Izugarrizko eztanda izan zen, hara zer beldurra pasa genuen". Bideak itxi nahi izan zituzten zubiak suntsituta. "Oso onak ziruditen hasieran. Soinean dominaz josita sartu ziren. Etorri eta 15 egun baino lehenago, kamioi batekin etorri ziren eta denda osoa hustu ziguten", azpimarratu du Navarrok. "Komandatea noizean behin etorri zitzaigun dena ondo ote zegoen ikusteko, eta goardia zibilek edozein egunetan bisitatzen gintuzten.



Espaniako gobernuaren aldeko desfilea Goikoplazatik behera bidean.



'Naparrek' gerran txikitutako zubia berriro eraiki ondoren, horren inaugurazio ekitaldia



Iñaki Arregi

"Pepe Balerdi boluntario joan zen Belabietara, eta hara non, bueltan etorri zen beldurtuta. Zer pasa zaik? galde egin omen zioten eta hark erantzun 'jotzera botatzen ditek!'"

besteak sartu zirenean 17 hil zituzten", zehaztu du Arregik.

Andoaingo herritarrak mobilizatu egin ziren 'naparren' etorreraren aurretik, Joxe Manuel Erkiziak adierazi duenez. Boluntarioak ziren haiek, ez Armada antolatua. Hasieran, inork gutxik hartu zuen serio gerra. Arregik azaldu du boluntario haietako bati gertatutako "anekdota polita": "Pepe Balerdi boluntario joan zen Belabietara, eta hara non, bueltan etorri zen beldurtuta. Zer pasa zaik? galde egin omen zioten eta hark erantzun 'jotzera botatzen ditek!'" Alegia, tiro egiten zutela pertsoneri bete-betean emateko.

Roke Ansa bat etorri da esaterakotan "jostaketa" bat zela hasieran.



Loren Navarro

"'Gorriak' sartu aurretik, haien beldur ziren herritarrak gaiztakeriak eginez zetozela esan zigutelako. Baina 'naparrak' etortzean konturatu ginen batak zein besteak zirela gaiztoak".

"Eskuinaldekoek gorde egin behar izan zuten komunistak etortzean. Hartan, hemengo jendeak nahikoa lan egin zuen eskuinekoak ezkutatzeko. Lasalleko hermanoak nahikoa estu erabili zituzten, 'gorriak' arrantxoan zeudela argazkiak atera zizkietelako. Baina Pablo Egibarri esker askatu zituzten, 'gorriak' eta nazionalistak bat eginda baitzeuden. Ez 'gorriek' eta ez inork, hemen ez zuen inor hil. Baina

## SALATARIAK

Gerra baino lehen baziren falangisten salatariak Andoainen. Justo Perez 'Azpikola' aipatu dute gure solaskideek, eta horrekin batera jesuita bat. Azpikola Andoainera etorri zen gerra hasi baino urte eta erdi lehenago, Erkiziak zehaztu duenez. "'Quinta columna' deitzen dena zen hura, aurreratuta etorri zen gerra prestatzeko. Dena galdezka ibiltzen zen, baina susmorik ez



Joxe Manuel Erkizia

"Justo Perez 'Azpikola' 'quinta columna' deitzen dena zen, aurreratuta etorri zen gerra prestatzeko. Dena galdezka ibiltzen zen, baina susmorik ez genuen salatari zela. Gerra heldu zenean, ordea, komandante zegoen".



Herritar batzuk indar frankistak agurtzen.

genuen. Gerra heldu zenean, ordea, komandante zegoen".

Navarrok esan duenez, bere familiaren laguna egin zen Azpikola. "Baina gerra hasi eta denda hustu zituztenean ohar bat jaso genuen

Komandantziatik, hara joateko esanez. Ama eta biok joan ginen. Han zegoen Azpikola. Kalte handia egin zuen harek". Izan ere, gerra aurretik bildutako informazioari esker, Andoaingo berri bazekien.

## ANDOAINDIK IHESI

Andoaindar askok alde egin zuten 'naparrak' sartu baino lehenago eta sartu ondorengo egunetan. 4.000 bat bizilagun zituen Andoainek orduan eta erdiek inguru alde egin zuten. Familia ugari banatu zituen gerrak.



Loren Navarro

"Aita Frantzira ihesi zihoala atxilotu zuten eta Santoñako kartzelara eraman. Gero Burgosera eraman zuten, San Pedro de Cardenara eta leku gehiagotara ere bai. Bartzelonako Prateko aireportua egitera zeramatenean amaitu zen gerra, eta etxera itzuli zen"

Navarrotarrak etxean geratu ziren. Aitak ihes egin zuen, ordea, eta ondoren atxilotu. Atzeman aurretik, Bilbora joan zen, eta gero Santander eta Asturiasera. "Frantzira zihoala atxilotu zuten eta Santoñako kartzelara eraman. Gero Burgosera eraman zuten, San Pedro de Cardenara eta leku gehiagotara ere bai. Bartzelonako Prateko aireportua egitera zeramatenean amaitu zen gerra, eta etxera itzuli zen", esan du Navarrok.

Txitxarrain baserriko Ormaetxea sendia Inturia baserrira joan zen, Bertxindik aurrera. "Bai pozik joan ginela ogiak bizkarrean hartuta", zehaztu du Joxepa Ormaetxeak. Anaia-arrebak joan ziren hara, baserrian geratu ziren aita-amak eta Villabonan okindegian lan egiten zuen anaia. Alde egin aurretik, anaia bat atxilotu zuten Kaletxikin. Barriolaneko etxea zaintzen zuen eta kanpoan zegoen min hartuta. "Naparrek" pentsatu zuten frontean zauritu zela eta atxilotu egin zuten. Baina bidean azaldu zen Enrique Laborde eta hark konbentzitu zituen ez zegoela zaurituta, min hartuta baizik". Indar frankistek aske utzi zuten horrenbestez.

Upategi baserriko Ansatarrek etxean geratu ziren. "Bonbardaketek aberia galantak egin zituzten inguruko baserrietan. Gure etxean kalentadorea erori zen bonbardaketa haietako baten ondorioz", esan du Mikela Ansa. Roke Ansa egin ditu zehaztasun gehiago: "Alde ez genuen egin, baina babes bila gurera etorri egin ziren Urnietako



Erreketeak Andoain menpe hartu ondoren, Donostiara bidean.

Etxeberriakoe, ganadua ekarri zuten gurera". Urnietako jende dexente etorri zen Andoinera beldurrez, izan ere, Karlistadetan baserri ugari erre zituzten eta berriro tankerako zerbait gertatuko zen beldur ziren.

'Naparrek' Buruntza hartu zuteneko gaua ekarri du gogora Roke Ansa, ordura arte sentitu ez zuen beldurra barruratu baitzioten indar frankistek.



Joxepa Ormaetxea

"Inturia baserrira joan ginenean, Bertxindik aurrera. Bai pozik joan ginela ogiak bizkarrean hartuta"

"Juanito Arruarte, Gurutzeaga baserrikoa, Lizarraga baserriko Ilarirekin ezkondu zegoen. Ilunduta zegoen eta gizona nonbaitera joan zen behiekin. Andrea, berriz, Lizarragara zetorren lauzpabost umeekin. Ez zekien ziur nondik zen bidea eta gure etxera etorri zen. Lizarraga non zegoen galdetu zuen eta joaten lagunduko niola esan nion". Emakumeari erakutsi zion Lizarraga eta etxerako bideari heldu Roke Ansa. "Banator etxera eta Anastegi baserriko parean ikaragarritzko bota hotsa entzun nuen. Bat batean, 'alto' entzun nuen. Ordurako nere osaba bat zetorren etxera ganadoarekin ibili eta gero. Etxean patruilak zebiltzala esan zuen eta amari beldurra sartu zion. Artean osaba soldadu joan gabe zegoen baina bazekizkien kontraseñak.

Nire bila irten zen eta ni geldiarazi ninduen patruilari azaldu zion zertara irten nintzen eta hala libratu nintzen".

Erkiziatarrek Zumaiara ihes egin zuten. Anaia zaharrenak, ordea, aurrera segitu zuen. "Zumaian ginela esan ziguten aita fusilatu zutela. 'Naparrek' Zumaia hartzean itzuli ginen Andoinera eta aita bizirik ikusi genuen". Ia fusilatu egin zuten Joxe Manuel Erkiziaren aita. Berak esan duenez, Bonba zaharreko zentralaren arduraduna zelako ez zuten hil.

Indar falangistek koartela zuten Bonba zaharrean. Baina indarrek aurrera egin zuten heinean, Donostia eta Irun menpe hartzean, koartela utzi zuten 'naparrek'. "Nire aita hura txukuntzera joan zen eta arma asko aurkitu zituen. Gure aita nazionalista zen eta armak putzura botatzekotan egon zen. Hala eginez gero, norbaitek jakingo zuela pentsatu zuen eta Goardia Zibilaren koartelera joan zen armen berri emateko. Hango kapitanari izena eman zion eta hori harrituta geratu zen, lehentxoago bi goardia zibil bidali zituelako aita atxilotzera". Kapitana etxera bidali zuen aita eta libre utzi zuen. Aita nork salatu zuen ez



Roke Ansa

"Guk alde ez genuen egin, baina babes bila gurera etorri egin ziren Urnietako Etxeberriakoe, ganadua ekarri zuten gurera"

zuten jakin orduan, baina gerora jakin dute Erkiziatarrek. Joxe Manuel Erkizia zehaztu duenez, bi lagunek eman zuten aitaren izena eta haietako bat asko ibiltzen zen aitarekin.

Zarragatarrek ihesaldi luzea egin zuten, Miren Zarragak azaldu duenez. Aita ohetik hartu eta eraman zuten eskuineko indarrek. Horren ondoren, familia osoa kamioiean eraman zuen Luis Urrutiak Bilbora, aita hangoa baitzuten. Baina han zirela izeba batek ohararazi zien alde egiteko, bila joango zitzaizkiela esanez. "Anaia zaharra Bilbon geratu zen, baina ama beste seme-alabak hartuta joan zen Asturiasera eta gero Santanderrera. Katalu-



Joxe Manuel Erkizia

"Nire aita Bonba zaharreko zentralaren arduraduna zen. 'Naparrek' koartela zuten han. Horiek alde egitean hura txukuntzera joan zen aita eta arma asko aurkitu zituen... Goardia Zibilaren koartelera joan zen armen berri emateko. Hango kapitani izena eman zion eta hori harrituta geratu zen. lehentxoago bi goardia zibil bidali zituelako aita atxilotzera".

etxera sartzeko baimena eskatzeko, eta biei moztu zieten ilea koartelean. "Ama kokilduta zegoen, baina izeba Pepita — ilea moztu ziotenetako bat— ez. Donostian egiten zuen lan, eta txapela jantzi eta 'autostop' egiten zuen lanera joateko. Behin erreketean autobusa gelditu zitzaion eta han joan zen".

Etxera sartzean ohartu ziren makina bat gauza errekiatu zizkietela eta Basteroko arkupetara eraman zituztela. Agintariak hor gordetzen zituzten hartutako gauza guztiak. Egoera horretan, "ama bost seme-alabekin aurrera atera ziren izebei esker, aita 1933an hil baitziztaigun".

Herriratu ondoren, kaleetan zehar



Andoaingo emakume talde bat herriko kaleak zeharkatzen indar frankisten aldeko ekitaldi batean.



Miren Zarraga

"Anaia zaharra Bilbon geratu zen, baina ama beste seme-alabak hartuta joan zen Asturiasera eta gero Santanderrera. Kataluniara joan ginen ondoren. Hilabete batzuk egin genituen han. Frantziarako bidea hartu genuen handik, eta bonbardaketa batek harrapatu gintuen. Azkenean, Belgikan eta Grenoblen egon ginen"

niara joan ginen ondoren. Hilabete batzuk egin genituen han. Frantziarako bidea hartu genuen handik, eta bonbardaketa batek harrapatu gintuen. Azkenean, Belgikan eta Grenoblen egon ginen".

Hiru urteko ibilbidea izan zen. Miren Zarragak 6 urte zituen ihesa hasi zuenean eta 9rekin etxeratu zen.

Miguel Amas gutxi oroitzen da gerra garaiaz. Baina ondo gogoratzen da anaia zaharrena eta bera kanpora atera zirela amarekin.

Arregitarrek hilabete egin zuten Orion. Han zirela 'gorriek' zubi bat lehertu zuten 'naparrei' bidea eragozteko, Iñaki Arregik esan duenez. Andoainera itzultzean, etxea prezintatuta zuten. Bi izeba joan ziren koartelera,



Iñaki Arregi

"Gertakariengatik ama kokilduta zegoen, baina izeba Pepita ez, koartelean ilea moztu zioten arren. Donostian egiten zuen lan, eta txapela jantzi eta 'autostop' egiten zuen lanera joateko. Behin erreketean autobusa gelditu zitzaion eta han joan zen".


lasai nekez ibil zitezkeen lehenago ihes egindako asko. Zarragak argi esan du "rojos" oihu egiten zietela kaletik zihozazenean.

## FUSILAKETAK

Andoaindarrek beraiek salatu zituzten herritarrak indar falagisten aurrean, eta salaketa horiei esker egin ziren izugarrikeria ugari. Amasek adierazi duenez, badirudi fusilaketak eten zirela komandante bat etorri zenean. "Hark esan omen zuen nazionalistak zergatik botatzen ziren hain erre. Aurrerantzean, gauzak bestela izan behar zutela erabaki zuen: bota

17 herritar fusilatu zituztela azaldu du Arregik. Gure solaskide guztiak ados azaldu dira kopuruarekin. Baina agiri ofizialen arabera, 15 fusilatu zituzten.

Nemesio Fernandez agoazila izan zen lehena. Horren ondoren hil zituzten Gregorio Martinez, Jose Maria Lasa, Jose Arana Etxenagusia, Antonio Arantzabal, Cruz Aldasoro, Pio Arza-



Buruzagi militar frankista bat hitzaldi bat egiten, ekitaldi batean.

aurretik, hori salatu zuenaren izena behar zela eta salaketa zergatik egiten zuen".

Salaketa gabe ere fusilaketak egin ziren. Gazteleraz ez jakiteagatik, gutxiagatik libratutakoak baziren. Euskara soilik hitz egitean, eskuineko indarrek kalean harrapatu eta ezin baitzuten ezer azaldu.

Ilus, Pio 'Xoldadu', Miguel Amundarain, Francisco Fernandez, Pako 'Exkerra', Faustino Aldaz, Miguel Urretabizkaia, Sixto Prestamero epailea, Esteban Olalde postaria —12 seme-alaben aita—, Secundino Anton eta Blas Rubio Ollokiko faktoria.

Urretabizkaiak gutun bat idatzi zion emazteari hil aurretik:

"Emazte maitea.

Egun gutxi barru fusilatu egingo naute. Badakit alaba bat izan dugula.

Hezi gure alaba Kristautasunean. Aitortza egin dut eta lasai hilko naiz.

Egun gutxi barru fusilatuko naute".

Gazteleraz da jatorrizko gutuna. Zarragak hitzez hitz buruz daki gutuna eta solaskide guztien aurrean eka- rri du gogora.

### ANDOAINEN FUSILATUAK

Nemesio Fernandez

Gregorio Martinez

Jose Maria Lasa

Jose Arana Etxenagusia

Antonio Arantzabal

Cruz Aldasoro

Pio Arzallus

Pio 'Xoldadu'

Miguel Amundarain

Francisco Fernandez

Pako 'Exkerra'

Faustino Aldaz

Miguel Urretabizkaia

Sixto Prestamero

Esteban Olalde

Secundino Anton

Blas Rubio

## BONBARDAKETAK

Bonbardaketa ugari izan zen Andoaingo bazterretan, Goikoplazan eta Aduna aldean. Ormaetxeak gogoratu du hegazkinak etortzean nola ezkutatzin ziren Ziako erreka zubi azpian, Txitxarain baserriaren eta Laborde lantegiaren artean. Indar frankisten hegazkinak Andoaingo aire eremu

zeharkatu aurretik, Goikoplazako San Martin elizako kanpai hotsek ohartarazten zituzten herritarrak, Navarrok azpimarratu duenez. "Ezkilen joa entzutean, herritarrak korrika joaten ziren babes bila. Bomba burrunba amaitzean irteten ziren babeslekuetatik".



Loren Navarro

"Ezkilen joa entzutean, herritarrak korrika joaten ziren babes bila. Bomba burrunba amaitzean irteten ziren babeslekuetatik".


## UDALETXEA

Pablo Egibar Euzko Alderdi Jeltzalekoa zen Andoaingo alkate gerra hasi zenean. Hark irabazi zituen gerra aurreko hauteskundeak, urtebete bat lehenago inguru. 'Naparrak' sartu zirenean, udaletxean bilera egin zuten



Loren Navarro

"Herri edo gune berri bat hartzen zutenean, kanpaiak jotzen zituzten garaipean ospatzeko eta gero Elizara joaten ziren meza entzuteko"



Andoaingo Udaleko agintariak udaletxeko balkoian gerra garaian.

indar frankistek eta alkatea aukeratu zuten, Roke Ansak zehaztu duenez. "Aurreko agintariak erakundeak utzi zituztela argudiatu zuten agintari berria karguan jartzeko". Agiri ofizialen arabera, Domingo Soroa izendatu zuten alkate.

Geroago, indar frankistek Andoaingo erabat menpe hartu zutenean, Jose

Maria Treku Alkain izan zen alkate. Hala adierazi dute gure solaskideek.

Navarrok azaldu du udal frankistaren anektoda bat: "Indar frankistek herri edo gune berri bat hartzen zutenean, kanpaiak jotzen zituzten garaipean ospatzeko eta gero Elizara joaten ziren meza entzuteko". Lehenago,

gerra bandoak irakurtzen ziren ozen herri osoan.

Kanpaiak ez ziren astintzen Andoaingo bakarrik, baita inguruko herrietan ere. Urnietan gertatutakoa aipatu du Roke Ansak. "Kanpaiak jo eta jo ari ziren. Hainbeste jotzean soka berotu egin zen eta kanpaia behera erori zen".

## KALEKO GIROA

Makina bat gauza aldatu ziren Andoaingo kaleetan, agintari berrien eraginez. Euskaraz mintzatzea erabat debekatu zuten. Etxeetan soilik hitz egiten zen. Gure solaskide gehienek hizkuntza horretan hitz egiten zuten etxeko beroan; ez ordea, kalean.

Udaletxeko balkoian Espainiako bandera zegoen masta goran. Herrita-



Joxe Manuel Erkizia

"Manifestazicetan aritzen ginen oihuka 'un, dos, tres, Malaga nuestro es' eta tankerakoak".

rrak haren aurretik igarotzean eskuin besoa altxatu beharra zutela azpimarratu du Ormaetxeak. Manifestazioak ere egiten ziren herriko kaleetan zehar indar frankisten alde, eta herritar guztiak behartuta zeuden parte har-

tzera. Erkiziak zehaztu duenez, "han aritzen ginen oihuka 'un, dos, tres, Malaga nuestro es' eta tankerakoak".

Navarrok etxe aurrean zuen JON-Sen egoitza. Basteron zegoen hori. "Ezin genuen balkoira atera. Egoitzak balkoi handia zuen eta jendez beteta egoten zen. Gu aurkakoak ginenez...". Espainiako bandera balkoian zintzilikatzeko agindu zieten Navarrotarrei. Oihal gorriarekin eta horiarekin egin zuten bandera txiki bat eta izkin batean jarri. "Berehala etorri zitzaizkigun, noski, bandera lehen jartzen genuen ikurriña bezain handia jartzeko esanez. Amak gordeta zuen ikurriña, marra lodi zuri, gorri eta berdearekin. Zer egin zuen? Berdea moztu egin zuen, txuria horiz margotu eta hala jarri genuen. Amak beti esaten zuen guretzat lehenengo ikurriña zela".

Euskal kutsuko gai ugari desagertu, puskatu eta erre ziren Andoaingo etxeetan, indar frankisten beldurrez. Ormaetxeak esan duenez, poxpilinarean

jantzia erre egin zuen amak. Navarrogen amak, ordea, gorde egin zuen jantzia eta txaleko bat egin zuen.

Egoera pixka bat normaltzen hasi zen denbora baten ondoren. Gero, ordea, beste arazo batzuk sortu ziren. Guztien artean nabarmendu behar da gosetea, zenbait kasutan izugarritzkoa. Egoera latz horretan, estraperloa egitea zen bizirauteko modu garrantzitsu bat.



Loren Navarro

"Berehala etorri zitzaizkigun, noski, bandera lehen jartzen genuen ikurriña bezain handia jartzeko esanez"

# ... ETA HURRENGO ALEAN ZER:

XX. mendeko lehen erdian jaiotako andoaindarren bizitza erabat markatu zuen gerra anker hari buruz aritu gara zenbaki honetan eta hurrengorako utzi behar izan ditugu gerra osteko kontuak. Haurtzarora eta gaztarora gerra ostean bizitu zuten herritarrek ondo gogoan gordeta dauzkate urte ilun haietan bizitutako estuasunak. Gosea eta miseria ere gertu-gertuan izan zituzten askok eta askok. Baina egoera zailenetan ere aurrera egiteko gai izan ziren guztiak ere. Etxeko ekonomiak ondo estututu, raziamentuari ahalik eta probetxurik handiena atera eta estraperloaz baliatzea beste erremediorik ez zuten izan. Guzti-guztia kontatuko dugu ekaineko lehen igandeko aldizkarian.



## Azkeneko zenbakia bakarrik falta da

1998. urteko gabonetan hasi genuen abentura ari da bere azkenera iristen: Azkeneko 'Atzoko Andoain eta Andoaindarrak' izango da datorren uztailen banatuko dena. Hamazazpi zenbakiz osatutako bilduma zabala egin dugu urte eta erdi honetan, orain dela mende erdiren bueltan gure herria eta herritarrak nola-koak ziren gogora ekartzeko. Zuen gustokoa izango ahal zen!



Manuel Larramendi  
Kultur Bazkuna



Andoaingo Udaleko  
Euskara Lansaila



Andoaingo Udala



Eusko Jaurlaritza

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz Politikarako Sailordetzaren diru laguntzaz, Andoaingo Udalak ordaindutako argitalpena

**Argitaratzaileak:** Manuel Larramendi Kultur Bazkuna Andoaingo Udaleko Euskara Lansailaren dirulaguntzaz. **Zuzendaritza:** Jone Larrañaga. **Erredakzioa:** Agurtzane Ormaetxea **Maketazioa:** Eva García. **Argazkiak:** Kutxa Fundazioa, Historia general de la guerra de España eta Egunkaria. **Inprimaketa:** Sortu grafikagintza (Zizurkil). **ISSN:** 1139-7497 **Lege gordailua:** SS-1594/98. **Tirada:** 3.000 ale.